

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ETIKETATZE-ERAGIKETEN IKUSKAPENA	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF0827		
Lanbide-arloa	ITSAS ETA ARRANTZA-JARDUERAK		
Lanbide-eremua	Arrantza eta nabigazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lonjen antolamendua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Lonjan produktuak biltegitzea eta erakustea	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Deskarga-eragiketen koordinazioa	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0290_3ko LB3 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Araudiak eta/edo kalitate-planak etiketei eskatzen dizkien ezaugarri fisikoak eta bete beharrekoak aztertzea, etiketatze-prozesua eta -tresnak eta dagozkien dokumentuen tramitazioa kontrolatuz.

E1.1 Arrantzako eta itsaski-bilketako produktu fresko eta izoztuen identifikazioari buruz indarrean dagoen eta etiketatzeko behar den araudia deskribatzea.

E1.2 Arrantzako eta itsaski-bilketako produktuen sailkapen eta etiketatzeari buruzko araudia interpretatzea, haiek behar bezala etiketatu ahal izateko.

E1.3 Indarrean dagoen araudia betetzeko, etiketek eduki behar dituzten neurriak eta espezifikazioak azaltzea.

E1.4 Etiketatzeari buruzko araudia ez ondo betetzeak berekin dakartzan ardurak deskribatzea, zigor posibleak ekiditeko.

E1.5 Espeziearen, kaxaren eta/edo erakustokiaren arabera, etiketak zer zonatan agertu behar duen jakitea, horri buruzko araudia betetzeko.

E1.6 Gorabeheren parteak identifikatzea, betetzea eta izapidetzea, araudia eta/edo kalitate plana kontuan hartuta.

Edukiak:

1. Arrantzako produktuak merkaturatzeari buruzko oinarriko arauaren garapena.

- Lehenengoz saltzen diren produktuak.. Freskotasunaren kategoria. Gutxieneko kalibrazioa. Tamaina minimoa.

2. "Loteen" seinalizazioa.

- Kontzeptua.
- Informazio-errotuluak, -panelak eta -oholtxoak.
- Informazioen tamaina.

3. Etiketatzearen aplikazioa.

- Diseinua eta neurriak.
- Idatziz jaso beharreko espezifikazioak.
- Trazabilitatea.
- Izendapen komertzialak eta zientifikoak.
- Salbuespenak.
- Arau-haustek eta zehapenak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lonjen antolamendua.